

9.JARDUERAK

Edozein enpresaren jarduerak bi arlotan bana daitezke: beste enpresa batzuen esku utz daitezkeen jarduerak edo kanpoko enpresen esku utzi ezin daitezkeen jarduerak. Beste enpresa batzuen esku utz daitezkeen jarduerak enpresak gastuak gutxiagotzeko edo arlo horiei garrantzi handia ez emateko erabiltzen dira, adibidez, kotxeak egiten dituen enpresa batek bere enpresarentzat segurtasunerako edo garbiketarako beste enpresa batzuk kontratatzen ditu, baina horietaz aparte, beste enpresa batzuei gurpilak, sentsoreak eta beirak erosten dizkie dirua eta lurra gehienbat aurreztearren.

Kanpoko enpresen esku utzi ezin daitezkeen jarduerak gure enpresaren muinak osatzen duten jarduerak dira eta babestu egin behar ditugu hauek daukagun aktiborik garrantzitsuena direlako. Hauek normalean, enpresa baten ezagutzak edo negoziaren know how -ak izaten dira, non, hauek gabe, gure enpresak ez luke ezertarako balioko, horregatik, ezin dira beste enpresa baten esku jarri.

Gure enpresaren funtsezko jarduera autobus geltokietako panelak itsutasuna duten pertsoneri "egokitzea" izango zen, hauei bozgorailuak eta software berri bat sartuz. Kanpoko enpresa bateri ez diogun jarduerak utzi gure panelen sistema sortzea eta hauek muntatzen izango ziren, hemen oinarritzen delako gure enpresa. Baita, gure enpresak panelen muntaia (panela, softwarea eta bozgorailuak) egingo zituen.

Azkenik, gure lokalaren garbiketa, ordenagailuen segurtasuna, lokalaren segurtasuna, panelen sorketa, bozgorailuen sorketa, etab. beste enpresa batzuei utziko geniokeen hasieran, gure enpresa ondo hasi arte ez genuelako nahi hasieran gure enpresa hau jarduera askorekin hasi eta.